

## Funtsezko elkarteak

Hainbat erakunde edo enprekin elkarteak egitea oso interesgarria iruditzen zaigunez enpresarentzako, harreman sinbiotiko bat sortuz (gure produktua eta produkzioa hobetzeko), BCCrekin (Basque Culinary Center) elkarlana egingo dugu, haiengandik oso baliozkoa izango den informazioa eskuratuz eta era berean haiek euren beharretara ahalik eta gehien egokituko den diseinua lortuko dutelarik.

Salmentarako, aipaturiko BCCz gain elkarte gastronomikoak, Makro, Eroski edota sukalderako tresna espezializatuak dituzten dendekin egingo da negoziazioa. Kostuak merketzeko helburuarekin hornitzaileekin ere elkarteak bilatuko dira Elektroson osagai elektroniko saltzailea eta Raspberry Pi izango direlarik.

